

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Añanako Kuadrillako lehendakariaren 108 zenbakiko Ebazpena, 2025eko urriaren 3koa, zeinaren bidez onesten baita Añanako Kuadrillako gerente-letradu lanpostua merezimendu-lehiaketa bidez bitarteko izendapenez betetzeko hautagaiak hautatzeko eta lan poltsa eratzeako deialdia arautuko duten oinarrien hutsen zuzenketa

2025eko irailaren 19ko ALHAOren 106 zenbakiko argitalpena ikusita, eta oinarrien edukian akats materialak aurkitu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Oinarri orokorretan dauden transkripzio akatsak zuzentzea (2025eko irailaren 19ko ALHAOren 106. zenbakiko iragarkiaren 1., 3. eta 7. orrialdeak):

Hau dioen lekuan: Destino-osagarria: 28. Berariazko osagarria: 20.911,41 Letradua - 3.977,19 Gerentzia, hau esan behar du: 26 letradua eta 28 gerentzia. Berariazko osagarria: 24.197,25 euro Letradua - 24.888,60 euro Gerentzia.

Honakoa dioen lekuan: B) Kontzejuak dituzten erakundeetan esperientzia izatea. Gehieneko puntuazioa: 3 puntu. Organo eskudunak A taldeko (A1 azpitaldeak) funtzionario edo lan-kontratudun gisa administrazio publikoetako goi-mailako teknikari lanpostuetan (letradu, gerente edo aholkulari juridiko gisa) egindako lanaldi osoko hilabete bakoitzeko, 0,05 puntu hilean, 60 kontzejuk edo gehiagok osatutako toki-erakundeetan. 0,10 puntu, 90 kontzejuk edo gehiagok osatutako erakundeetan. Honakoa esan behar du: Organo eskudunak A taldeko (A1 azpitaldeak) funtzionario edo lan kontratudun gisa administrazio publikoetako goi-mailako teknikari lanpostuetan (letradu, gerente edo aholkulari juridiko gisa) egindako lanaldi osoko hilabete bakoitzeko, 0,05 puntu hilean, 60 kontzejuk edo gutxiagok osatutako toki erakundeetan. 0,10 puntu, 61 kontzejuk edo gehiagok osatutako erakundeetan.

Honakoa dioen lekuan: Horregatik guztiagatik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Kuadrilla honetako teknikari soziokulturalaren lanpostua betetzeko bitarteko funtzionarioa hautatzeko prozesuan onartua izateko eskatzen dut. Honakoa esan behar du: Horregatik guztiagatik, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 55. eta 56. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Kuadrilla honetako gerente-letraduaren lanpostua betetzeko bitarteko funtzionarioa hautatzeko prozesuan onartua izateko eskatzen dut.

Bigarrena. Deialdia ALHAOn argitaratzea.

Tercero. Kuadrillako Batzordeari ebazpen hau jakinaraztea egiten duen hurrengo bilkuran.

Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan bertan. Bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegietan bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123.,

eta 124. artikuluek eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoaren arabera.

Ribabellosa, 2025eko urriaren 3a

Lehendakaria

RUBÉN TORREMOCHA GALÁN